



A m o r o t o k o U d a l a

Elxalde Auzoa, 1
48289 Amoroto (Bizkaia)
Tel: 946842549 - Fax: 946243704
E-mail: mblaka.amoroto@bizkaia.org
Web: www.amoroto.net

Akta: 08/04

2004KO IRAILAREN 15EAN EGINDAKO BATZARRA

Amoroton, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta lauko irailaren hamabostean, gaueko zortzietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andrea buru dela.

Bertaratuak:

Zinegotziak: Ramon Abaroa Iturran
Bitor Mari Gabiola Leniz
Sorkunde Gabiola Zabala
Ainara Ikaran Zugazaga
Igor Gabiola Antxustegi
Pedro Mari Arriaga Meabebasterretxea
Idazkaria: Miren Begoña Laka Ortuondo

Bertaratu ez direnak:

Bat ere ez

Alkate-udalburu andreak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- DURANGO ESKUALDEKO HILTEGIARI BURUZKO AKORDIOA.-

Durango Eskualde Hiltegiko Mankomunitateko lehendakariak bidalitako idatzian, eskualdeko hiltegia beste leku batean kokatzeari buruzko erabakiak berrestea edo ezestea eskatu du.

Amorotoko Udalak, 2002ko otsailaren 27ko osoko bilkuran, Durangaldean hiltegi berri bat egitearen aldeko erabakia hartu zuen.

Gaia sakonki aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1) 2002ko otsailaren 27an osoko bilkurak Durangaldean hiltegi berria egitearen alde hartutako akordioa berrestea.
- 2) Durangoko Hiltegiko Mankomunitateari jakinaraztea erabaki hau.

2.- HIRIGINTZA ETA UDAL HARREMANEN FORU DIPUTATUAREN 1166/2004 FORU AGINDUARI BURUZKO AGINDEIA.-

Amorotoko Udalak, 2004ko maiatzaren 26ko akordioaren bitartez, dirulaguntza eskatu zuen "Amorotoko udalerriko hiri gunean zerbitzu ezberdinen berrantolaketa eta ezarpenari buruzko proiektua" aurrera eramateko, 91/2004 Foru Dekretuaren arabera.

Hirigintza eta Udal Harremanen Foru Diputatuak, 1166/2004 Foru Aginduz, aipatu dirulaguntza ukatzea erabaki du. Ukapenerako arrazoia proiektuaren aurrekontua 300.000 euro baino gehiagokoa dela da.

Hori dela eta, udal honek aipatu proiektua fase bitan desglosatu du, Udalerrien Azpiegitura, Ekipamendu eta Zerbitzuetarako Planean ezarritako kriterioak betetzeko.

Ondorioz, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) "Amorotoko udalerriko hiri gunean zerbitzu ezberdinen berrantolaketa eta ezarpenari buruzko proiektua" fase bitan desglosatzea, Learri, S.A.k egindako txostenaren arabera:

- 1. Fasea: 299.284,00 euro.
- 2. Fasea: 194.333,00 euro.

2) Hirigintza eta Udal Harremanen Foru Diputatuaren aurrean agindeia edo errekerimendua jartzea, eskatutako dirulaguntza ukatzen duen 1166/2004 Foru Agindua berraztertua izan dadila eskatuz eta "Hiri gunean zerbitzu ezberdinen berrantolaketa eta ezarpenari buruzko proiektuaren" 1. faseko obrak, 299.284,00 eurotako aurrekontuarekin, aurrera eramateko dirulaguntza emateko eskatuz.

3) Akordio hau Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza eta Udal Harremanen Foru Diputatuari jakinaraztea, aipatu errekerimendua jarritakotzat hartua izan dadin eta eskatutako dirulaguntza emana.

3.- AMOROTOKO MEDIKU-KONTSULTA EGOKITZEKO ESTUDIOA "LEARRI, S.A." MERKATARITZA-ENPRESAREN ESKU UZTEKO PROPOSAMENA.-

Alkate andreak azaldu du Amorotoko mediku-kontsultan egokitze obrak egiteko premia dagoela. Itxaron gela handia du eta orain zerbitzu gutxi ematen zaio eta kontsulta biak txiki samarrak ei dira. Beste ezer baino lehen ezinbestekoa da estudio edo proiektu txiki bat eta planifikazioa egitea.

Aipatutakoa kontuan izan da, eta ondokoa ere OINARRITZAT HARTU DA:

Lehenengoa: Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15 artikulua, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeko aldarazpenak aintzat hartuta, ondokoa ezarri zuen:

1. Zuzenbide publikoko erakunde edo administrazio-organoen eskumeneko jarduerak, zehazkiago esateko, arlo material, tekniko edo zerbitzu arloko jarduerak, burutzeko ardura Administrazio bereko edo beste Administrazio bateko organo edo erakundeen esku utz daiteke, eraginkortasun arrazoiak direla-eta, edo jarduera horiek burutzeko bitarteko tekniko egokirik ez badago.
2. Kudeaketa norbaiten esku uzteak ez du esan nahi eskumenaren edo eskumena burutzeko funtsezko elementuen titulartasuna lagatzen denik, eta kudeaketa besteren esku uzteko proposamena egiten duen organo edo erakundearen ardura da besteren esku utzitako jarduera material zehatza osatzen duen edo jarduera horren euskarri den egintza edo ebazpen juridiko oro burutu edo ematea.
3. Administrazio bereko zuzenbide publikoko administrazio-organoen edo erakundeen arteko kudeaketa norbaiten esku uztea bertako araudiak ezarri bezala formalizatu beharko da eta, araudirik ez balego, parte hartzen duten organo edo erakundeen berariazko erabakiaren bidez. Edonola ere, kudeaketa norbaiten esku uzteko proposamena formalizatzeko bitartekoa eta ebazpena bidezko egunkari ofizialean argitaratu behar dira, eraginkorrak izan daitezten.
Administrazio bakoitzak beharrezko betekizunak arautu ahal izango ditu akordio horiek baliozkoak izan daitezten. Akordio horiek, gutxienez, honako hauek aipatu behar dituzte berariaz: eragina jasango du(t)en jarduera(k), indarraldia eta norbaiten esku utzitako kudeaketaren izaera eta irismena.
4. Kudeaketa hori norbaiten esku uztea Administrazio desberdinetako organo eta erakundeen artean egiten bada, bidezko hitzarmena sinatuko da organo eta erakunde horien artean, Autonomia Erkidegoetako zerbitzuak, modu arruntan, probintziako Diputazioek, edo bidezkoa bada, uharteko Kabildo edo Kontseiluek kudeatzen badituzte salbu; izan ere, kasu horretan Toki Araubideko legediari heldu behar zaio.
5. Artikulu honetan araupetzen den kudeaketa norbaiten esku uzteko artikulu honetan araubide juridikoa ez da aplikatuko lehenengo atalean adierazitako jarduerak zuzenbide pribatuko pertsona fisiko edo juridikoek

burutu behar badituzte. Izan ere, kasu horretan kontratuei buruzko Estatuko legediari heldu behar zaio, bidezkoa denean, eta indarrean dagoen legediaren arabera, administrazio-zuzenbideari jarraiki egin behar diren jarduerak ezin dira izaera horretako pertsona edo erakundeen esku utzi.

Bigarrena.- "LEARRI, S.A." enpresa bideratzailea da eta bere gizarte-jarduerak burutu beharreko obrak barne hartzen ditu. Enpresaren kapital sozial guztia tokierakundeena da, Udal honena, besteak beste, Udala "LEARRI, S.A." sozietateko bazkidea da eta. Horrela bada, kontratazioari dagokionez, Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua aplikatzen zaio; hori dela eta, kasu honetan funtsezko baldintzak eta baldintza organikoak betetzen dira LEARRI, S.A. sozietateak goiburukoan adierazitako obren burutzapenean organo kudeatzaile gisa jardun dezan.

Ondorioz, aurreko arauak, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen Legea, orokorrean eta berariaz aplikatu beharreko gainerako arauak, bai eta gai honi dagokionez egindako txostenak aztertu ondoren, Udalaren osoko bilkurak, gaia eztabaidatu eta gero, aho batez, ondokoa ERABAKI DU:

1) LEARRI, S.A. merkataritza-enpresari emango zaio **"Amorotoko mediku-kontsulta egokitzeko"** estudio edo proiektu txiki bat idazteko enkargua eta obren planifikazio orokorraren ardura.

2) Alkate andreari eskumena emango zaio, erabaki hau betetzeko egintza edo izapideak egin eta, bidezkoa bada, akatsak zuzen ditzan.

3) Erabaki honen berri emango zaio LEARRI, S.A. enpresari.

4.- BAKE EPAITEGIRAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA.-

Bake Epaitegietako inbertsio eta funtzionamendu gastuei aurre egiteko, Autonomi Elkarteko Udalentzako dirulaguntzak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren 2004ko uztailaren 15eko Agindua ikusirik. Idazkariak azaldu du Erregistro Zibileko liburuak zaharberritzeko premia handia daukatela. Lanen kostua 3.248,00 eurotako litzateke, udal honen eskaeraz Verjura y Corondel, S.L. enpresak aurkeztutako aurrekontuaren arabera.

2003 urtean ere eskatu zen dirulaguntza eta 507,01 eurotako laguntza ematea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak. Dena den, laguntzaren zenbatekoa gutxi zela eta, ez da inbertsioa burutu. Ahal den neurrian interesgarria litzateke, aurten ere eskatzea dirulaguntza eta, eman ez gero, urte bietako dirulaguntzak akumulatzea inbertsioa egiteko.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari Amorotoko Erregistro Zibileko liburuak koadernatu eta zaharberritzeko HIRU MILA BERREHUN ETA BERROGEITA ZORTZI (3.248,00 €) eurotako zenbateko osotik, %100a arterainoko dirulaguntza eskaera egitea, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren 2003ko irailaren 3ko 4.1.d) artikuluan adierazitakoarekin adostasunean.

5.- ELEIZALDE I E.U.KO URBANIZAZIO PROIEKTUAN PROPOSATURIKO ZOLADURA ALDATZEA ONTZAT EMATEA.-

Learri, S.A., Eleizalde I E.U.ko urbanizazio obren adjudikatzailerik eta kudeatzaileak aurkeztutako txostena aztertu da. Aipatu txostenean, proiektuan proposaturiko zoladuraren alternatibak azaltzen dira. Proposatutako alternatibak sakonki aztertu ondoren, udalbatzak aho batez erabaki du:

Txostenean azaldutako bigarren alternatiba a) onartzea, hau da, ibilgailuentzako bideetan eta aparkalekuetan galtzada-harrien eta sareten ordeztasun asfaltozko aglomeratua eta espaloietan hormigoi inprimatua (15 cm-ko lauza armatua) ezartzea. Honek 12.500 € euroko kostua dakar proiektuan aurkezturiko jatorrizkoaren gainean.

6.- GASTUAK.- Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, behar bada onartzeko:

- Egoitz Lertxundi Imazeri, 468,00 €.
- Ugaitz Iturraran Gabiolari, 108,00 €.
- Asier Gabiola Argoitiari, 108,00 €.
- Iker Gabiola Idoiagabeitiari, 108,00 €.
- Josune Arostegi Lakari, 118,08 €.
- Autokonponketak Lean, C.B.ren faktura, 173,74 €.
- Acidekaren faktura, 169,94 €.
- Wurthren faktura, 310,88 €.
- Lekeitio Kontainer eta Garraioak, S.L.ren fakturak, 185,60 € eta 185,60€.
- Fontaneria Letraukua, S.L.ren faktura, 168,06 €.
- Javier Artaetxebarriaren faktura, 115,00 €.
- Aroztegia Talaren faktura, 847,37 €.
- Saneamientos Ondarroa, S.L.-ren fakturak, 21,94 € eta 85,23 €.
- Ikusiren faktura, 40,65 €.
- Irratibide, S.A.ren faktura, 279,56 €.
- Canonen faktura, 11,79 €.
- Okileren faktura, 392,00 €.
- Lurkoi, S.L.ren faktura, 33,28 €.
- Arlanen faktura, 571,83 €.

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu andreak bilera amaitutzat eman du gaueko hamaikak eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.